

Oskar Txoperena Mendigutxia

*Igantzi,
Nafarroa
(1960)*

Aurkibidea

Biografia



Zintak

IGA-029

- **Proiektua:** Euskararen biziberritzea Bortzirietan 1970-1990
- **Elkarrizketatzailea(k):** Larretxea Agirre, Ainhoa

- **Data:** 2023-03-16
- **Iraupena:** 32 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Larretxea Agirre, Ainhoa

Pasarteak

1. Oskarren aurkezpena

- **Erref:** IGA-029/001
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Herriko giroa

Laburpena:

Igantziarra da Oskar eta 62 urte ditu. Etxean euskaraz aritzen ziren, baina eskolan gaztelaniaz ikasi zuen. Lesakan ikasi zuen; han erdal giroa zegoen. Igantzin ere bera gaztea zelarik zegoen giroa nahiko erdalduna zen; nesken artean are erdaldunagoa. Oskar emaztearekin gaztelaniaz solastatzen zen, baina egun batean hizkuntza ohitura aldatzea erabaki zuten eta beren artean euskaraz egiten hasi ziren. Gainera, alfabetatzea erabaki eta Irungo AEKn eman zuten izena.

2. AEKn bi korronte ezberdin

- **Erref:** IGA-029/003
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:02:00. **Bukatu:** 00:04:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Irungo AEK-koek Bortzirietan euskaltegi bat sortzeko ideia eman zioten, eta halaxe hasi ziren Oskar eta Mikel Legarra; jende gehiago ere elkartu zen proiekturat. Malerrekakoekin harreman hagitz ona zuten, eta elkarrekin prestatzen zituzten klaseak. Gero, Nafarroa mailan hasi ziren koordinatzen eta Iruñeko AEKrekin hasi ziren harremanetan, Nafarroako bileretara joaten. Han, bi korronte ezberdin ikusi zituzten; baziren bi bide ezberdin garatu nahi zuten euskaltegiak.

3. Oskarren esperientzia euskaltegian

- **Erref:** IGA-029/004
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:04:21. **Bukatu:** 00:06:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

AEKren barneko gorabeherak alde batera utzita, ikasturtearen prestaketarekin jarraitu zuten Bortzirietan, eta ehun eta piku ikasle bildu zituzten klaseak emateko. Oskarri Berako alfabetatzeko taldea egokitu zitzaion, 16 bat lagunekoa. Geroago, Igantziko Udaleko dimisio bat zela eta, euskaltegia utzi eta udalean sartu zen Oskar.

4. Mikel Legarrari buruz

- **Erref:** IGA-029/005
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:06:07. **Bukatu:** 00:06:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Mikel Legarraren lana azpimarratzen du Oskarrek; eskualdean lan handia egin du euskararen alde.

5. Igantziko apezaren lana euskararen inguruan

- **Erref:** IGA-029/006
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:06:32. **Bukatu:** 00:08:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

Oskarrek 16-17 urte zituelarik, Juan Bautista Irazoki apeza joan zen Igantzira; euskarari zegokionez, pertsona hagitz garrantzitsua izan zen herrian. Ikastolaren sorreran lagundu zuen apezak, baita Biltoki elkartearen sorreran edota Euskal Telebista ikusi ahal izateko antena paratzeko lanetan ere.

6. Alfabetatzeko klaseak

- **Erref:** IGA-029/007
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:08:37. **Bukatu:** 00:10:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Irungo AEK-ko alfabetatzeko klaseetan, gehienak emakumeak ziren eta irakaskuntzaren mundukoak. Klase haietan, euskara ikasteaz gain, kontzientzia politiko eta soziala ere garatu zuten. Aberasgarria eta polita izan zen Oskarrendako.

7. Euskaltegiaren sorrera

- **Erref:** IGA-029/008
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:10:13. **Bukatu:** 00:11:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Euskaltegia sortzeko prozesuan, proiektua garatzeko jendea bilatzea izan zen lehenbiziko urratsa. Lehenbiziko urtean, inprobisazioa izan zen nagusi, irakasleek ez zuten prestakuntzarik. Zeudenen artean lana banatu, eta bertzerik gabe, hasi egin ziren.

8. Euskaltegiko irakasleak

- **Erref:** IGA-029/009
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:11:36. **Bukatu:** 00:13:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Euskaltegiko irakasleak zeintzuk ziren aipatzen du Oskarrek.

9. Klaseak prestatzeko materiala

- **Erref:** IGA-029/010
- **Iraupena:** 0:00:27. **Hasi:** 00:13:39. **Bukatu:** 00:14:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Klaseak prestatzeko, Txillardegiaren gramatika liburua erabiltzen zuten. Geroxeago, AEK-ko liburu batzuk ere erabili zituzten; dena dela, modu hagitz prekarioan hasi ziren.

10. Euskaltegiaren egoitzak

- **Erref:** IGA-029/011
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:14:06. **Bukatu:** 00:15:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Euskaltegia non hasi zen aipatzen du Oskarrek. Lesakako Bordieneko lokal batean lehenbizi, Lesakako ikastola ondoko lokal batean ondotik eta Lesakako

Alondigan gero. Matxinbeltzenean finkatu zuen euskaltegiak egoitza azkenean.

11. Matxinbeltzenearen sorrera harrigarria

- **Erref:** IGA-029/013
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 00:15:20. **Bukatu:** 00:15:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Matxinbeltzenea bezalako etxe handi bat martxan paratzea harrigarria iruditu zitzaion Oskarri.

12. Euskararekiko aldaketa poliki-poliki Igantzin

- **Erref:** IGA-029/014
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:15:48. **Bukatu:** 00:16:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

80ko hamarkadaren erditik aitzinerat, D ereduarekin eta gazteen kontzientziazioarekin, euskararekiko aldaketa sumatzen hasi zen Igantzin.

13. Mugimendu handiko garaia

- **Erref:** IGA-029/015
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:16:59. **Bukatu:** 00:18:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Garai hartan, mugimendu handia zegoen: ikastolaren sorrera, euskaltegia, Bidaso eguna... 1985ean euskara mankomunitatearen sorrerarekin hasi ziren.

14. Bidaso eguna

- **Erref:** IGA-029/016
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:18:11. **Bukatu:** 00:19:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Aisia » Kultura

Laburpena:

Biltokik antolatu zuen Bidaso eguna. Eskualde osoko elkarteak elkartzen ziren

eta besta kultural gisakoa antolatzen zuten: artisauak, pilota-partiduak, dantzak, abesbatza, musika... Sunbilla, Igantzi eta Hendaian antolatu zuten besta hori.

15. Euskara mankomunitatearen sorrera konplexua

- **Erref:** IGA-029/017
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:19:48. **Bukatu:** 00:21:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Euskara mankomunitatearen sorrera nahiko konplexua izan zen: Nafarroako lehenbizikoa izan zen, eta gainera 5 herri biltzen zituen. Izan zuten zailtasunik handiena eredu mota erabakitzea izan zen. Udalak konbentzitzen ere lana izan zuten.

16. Ttipi Ttapa aldizkaria lehen eta orain

- **Erref:** IGA-029/020
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:23:56. **Bukatu:** 00:25:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Aisia » Kultura » Hedabideak
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Prentsa

Laburpena:

Ttipi Ttapa aldizkariaren sorreraz solastatzen da Oskar. Egungo aldizkaria eta hasierakoa hagitz ezberdinak ziren. Hasierakoak Argia aldizkariaren eredu segitzen zuen, nolabait: ekologia, feminismoa, arazo sozialak... lantzen ziren. Gero, poliki-poliki aldatu eta herrietako berriak ematen hasi zen. 1987. urte inguruan egin zuen Oskarrek lehenbiziko kolaborazioa Ttipi Ttapa aldizkarian: Igantziko saskigileei buruz idatzi zuen.

17. Oskarren kolaborazioa Ttipi Ttapan

- **Erref:** IGA-029/022
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:25:56. **Bukatu:** 00:26:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Prentsa
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

2005 urte inguruan utzi zion Oskarrek Ttipi Ttapan kolaboratzeari. Hondarrean, lan gisakoa bihurtua zen eta aunitz kostatzen zitzaion. 18 bat urte aritu zen kolaboratzaile.

18. Euskaltegiko garaia nostalgiaz

- **Erref:** IGA-029/023
- **Iraupena:** 0:00:32. **Hasi:** 00:26:45. **Bukatu:** 00:27:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Euskaltegiaren garaia nostalgia pixka batekin ikusten du Oskarrek. Garai hartan izan zuten indarra eta gogoaz azpimarratzen ditu.

19. Lortutakoaz harro

- **Erref:** IGA-029/025
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:28:19. **Bukatu:** 00:29:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Gibelerat begira, harrotasuna sentitzen du Oskarrek egindakoaz eta lortutakoaz.

20. Haur eta gazteak euskaraz

- **Erref:** IGA-029/026
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:29:21. **Bukatu:** 00:30:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Pasadizo bat kontatzen du Oskarrek. Gipuzkoatik Bortzirietara bizikletaz etortzen den batek aipatu zion harritia gelditzen dela bertako haur eta gazte guziak euskaraz solasean adituta.

21. Bortzirietan euskaltegirik ez

- **Erref:** IGA-029/029
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:30:55. **Bukatu:** 00:32:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Oskar Irunera joan zen euskaraz alfabetatzera Bortzirietan ez zegoelako euskaltegirik.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com